gernika-lumoko
euskara zerbitzua

# "EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALAREN II. EDIZIOA" (2020) GERNIKA-LUMON

# JUSTIFIKAZIOA

**1.- SARRERA**
**2.- HELBURUAK**
**3.- GARAPENA**
**4.- ERAGILE NAGUSIA**
**5.- BALIABIDEAK**
**6.- BALORAZIOA**
**7.- AURREKONTUA**

**Eranskinak:**

I.- Euskaraldian parte hartu duten entitateen zerrenda
II.- Euskaraldiaren zabalkunderako zenbait euskarri
III.- Euskaraldiaren inguruko ekitaldiak (argazkiak)

## 1.- SARRERA

Honako egitasmoa beste baten jarraipena izan dugu, “11 egun euskaraz” ekimenarena, 2018an Euskal Herri osoan bizi izan genuen “Euskaraldia”-ri bigarren edizioa erantsi zaiona.

Beraz, 2020an “EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALAREN 2. EDIZIOA (2019-2020)” gure herrian garatzea izan dugu xede, lehenengo edizioan sortu zen sareari eta bizi izan genuen motibazioari eutsiz.

## 2.- HELBURUAK

**Kontuan hartu behar Euskaraldiaren “helburu orokorra”**: herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea. Horrekin lotuta, hona ekarri behar ESEP-en arabera moldatutako ekintza berezia 2018ko Kudeaketa Planean eta ESEP berrian (2019-2022) oinarrituta garatutako 2020ko Kudeaketa Planean ere aintzat hartutakoa:

- Helburu estrategikoak lortzeko zehar lerroak
- ***Euskararen zabalkundea:***
- Esparrua (15): Barruko proiekzioa
- Ekintza: 15.1.2.1. "Euskaraz 365 egun" ekimenaren barruan "15 egun euskara” Euskalraldiaren II. Edizioari begirako lanketa

Ekimen honen bidez lortu nahi diren helburu zehatzak:

- Partaideen artean ekimen hori garatu izan zen sasoiko tentsioa mantentzeko dinamika sortu.
- Euskaraldiaren II. Edioziorako partaidetza landu Gernika-Lumon (entitateak, norbanakoak, sare sozialak, eragile nagusiak,…).

## 3.- GARAPENA

Beraz, “EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALAREN 2. EDIZIOA (2019-2020)” ekimen horren helburu zehatzari eutsiz *(“Euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten; 2020 azaroaren 20tik abenduaren 4ra garatuko da Euskal Herri osoan”)*, 2020an nahi izan dugu egitasmo berezi bat garatu. Laburbilduta, hauxe izan da:

- **Bi parte hartzaile mota egon dira**: norbanakoak eta entitateak (2018an entitateak sustatzaile izan ziren soilik, ez parte hartzaile).

- **Entitateen parte hartzearen ezaugarriak**. Izena eman duten entitateek hiru egiteko nagusi izan dituzte, hirurak bete beharrekoak:

1. Ekimenaren sustapen lana. Beren kideei (langile, bezero zein bakide) ekimenean parte hartzeko proposamena egitea eta horretarako baldintza egokiak eskaintzea (txapak, prestakuntza eta abar).

2. Entitateko ulermenaren diagnosia. Elkartea, enpresa edo erakundea osatzen duten kide guztien euskara ezagutza aztertu da, gutxienez euskara ulertzen duten kideak eta hauek osatzen dituzten espazioak zeintzuk diren ezagutzeko.

3. Belarriprest eremuen identifikazioa eta bultzada. Entitateen espazioetan (fisikoak zein ez) kideen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko edo eta herritarren eta entitateen arteko hizkuntza-harremanak aldatzeko pausoak eman dira.

- **Zenbait ohar entitateen eta norbanakoen parte hartzeari buruz**:
  - Bien ariketak lotuta egon dira. Entitate bateko taldean edo eremu fisikoan parte hartzen aritu den norbanakoa belarriprest izan bada, edo harreran zegoelako belarriprest gisa jokatzen izan badu, hala izan behar zuen gainontzeko esparru guztietan ere. Aldiz, eremu izendatutako batean ahobizi gisa aritu bada, bere eguneroko jardunean ahobizi behar zuen 15 egunetan.
  - Entitateek zein norbanakoek eman behar izan dute izena ekimenean: lehenik entitateek, eta aurrerago ariketan parte hartu duten pertsonek.
  - Identifikazio ikurrak egon dira norbanako zein entitateentzat; 2018an egin bezala, ikur horiek ariketak iraun duen egunetarako izan dira.
  - Entitateetan ezagutzaren eta ulermenaren diagnosia egiteko tresna eskaini da koordinaziotik.
  - Entitateekiko harremanetan herritarrek euskaraz aritzea bermatu ahal izateko, entitateei beren kideak belarriprest izateko bidean urratsak ematen laguntzeko aukerak aztertu dira.

## KRONOGRAMA

| Jarduerak | 2019 10/12 | 2020 01/03 | 2020-04/06 | 2020-07/09 | 2020-10/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| I. edizioko ikerlanaren emaitzak prestatu (I. edizioari buruzkoa) | urria | | | | |
| I. edizioko ikerlanaren emaitzak aurkeztu Euskaraldia batzordeari eta I. edizioko "hamakakoei" (ekitaldi irekia) | azaroa | | | | |
| Agerraldia aitzindariekin (lehen entitateekin, trakzio lana egin dezaten | azaroa | | | | |
| Euskararen egunean II. Ediziorako aurkezpen ekitaldia eta manifestua irakurtzea (entitateak, norbanakoak) | abenduak 3 | | | | |
| Herri Batzordearen izena ematea | | | | | |
| Herri Batzordearen prestakuntza | | | | | |
| Pedagogia lana herritarrekin eta entitateekin | | | | | |
| Entitateen izen ematea | | | | | |
| Entitateen diagnostikoak ulermena zenbatekoa den jakiteko | | | | | |
| Herritarren izen ematea | | | | | |
| Ekimena (azaroak 20-abenduak 4) | | | | | |
| **Ekitaldiak** | | | | | |
| Euskaraldirako streaminga (BERAKATZZOPA TV) | | | | | |
| Euskal Lorratzak (kontzertuak/abestiak, sarean) | | | | | |
| 11 orduko irakurraldia | | | | | 3 |
| Amaierako ekitaldia (mezua, ....) | | | | | 4 |

## 4.- ERAGILE NAGUSIA

Euskaraldiaren I. edizioa garatu ahal izateko ezinbestekoa izan zen babes soziala eta, ildo horretatik, beharrezkoa izan zen herri mailan Sustatzaile Batzordea eratzea. Beraz, **Sustatzaile Batzordea/Talde Eragilea** bera izan da 2020ko bigarren edizioan ere Euskaraldiaren jarraipenerako ardura izan duena. Hona hemen Sustatzaile Batzorde horren zeregin nagusiak:

- **Dinamika orokorra tokian tokiko errealitatera egokitzea. Ekimenaren jarraipenerako planteatu den egitaraua**, eragileetara eta xede-taldeetara egokitu da.

- **Tokiko euskalgintzako eragileen artean garatzeko ardura**. Ekimena bultzatzeko tokiko euskaltzaleen taldea osatu behar izan zen 2018an, eta bertan egotea komenigarri jo zen udaleko euskara zerbitzua (teknikaria eta arduradun politikoa), euskaltzaleen elkartea edo euskararen erabilera sustatzea helburu duten gizarte-eragileak, ikastetxeak, euskaltegiak eta abar. Euskararekiko ardura duten bestelako entitateak izan ditugu sustatzaile.

- **Ekimena gauzatu ahal izateko baliabideak.** Baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta herri mailako komunikaziorako baliabideak lortzeko ardura.

Hargatik, aipatu **Sustatzaile Batzordea/Talde Eragilea 2018an eratzeko** eskura genuenetik abiatu eta osatu genuen moduan, eta orduko arrakasta kontuan, 2020an horri eutsio dio Euskara Batzordeak:

- **Oinarria**.- Hitzargune-ko (enpresa, merkataritza eta elkarteen esparruetan hitzarmengintza lantzeko kanpaina) Talde Eragilea (euskalgintza):
  - AEK euskaltegia (Berbalagun,…)
  - Seber Altube ikastola.
  - Busturialdean euskaraz bizi elkartea
  - Hitzargune kanpainako Arduraduna

- **Talde eragilea osatzeko gainerakoak**:
  - Euskara zinegotzia + Hizk. Norm. Teknikaria (Udala)
  - Euskaraldiko dinamizatzailea
  - Udal taldeen ordezkariak (2 zinegotzi)
  - Aita Villasante Udal Euskaltegia
  - Gernika Institutua
  - Maier enpresa + erabilera Plana duen enpresa bat (Ekin Autoak)
  - Sindikatuak (ELA eta LAB)

- **Talde eragilearen laguntza taldea**.- Gainerako erakundeei eta partikularrei aukera eman zaie Talde Eragilearekin elkarlanean aritzeko eta hausnarketa zein erabaki orokorretan ere parte hartzeko.

Hargatik, 13 bat kide izan dira Batzorde horretan, gehi parte hartzeko borondatea azaldu duten erakundeak eta partikularrak. Guztira bost bat batzar izan dira 2020an zehar. Esan behar da Talde Eragile horren magalean **Batzorde tekniko bat** aritu dela erabakiak gauzatzeko, honako hauek osatu dutena:

- Hizkuntza normalizaziorako teknikaria (Bittor Zarrabeitia)
- Euskaraldirako teknikaria (Leire Garatxena –Busturialdean Euskaraz Bizi Elkartea)
- Hitzargune kanpainako koordinatzaile eta euskara dinamizatzailea (Estiñe Astorkia
- Artez enpresako teknikariak (Itxaso Vazquez, Ane Iturriarte).

## 5.- BALIABIDEAK

**Giza baliabideak:**

- Euskara zinegotzia eta Hizkuntza normalizaziorako teknikaria (koordinazio lanak).
- Euskara Sailak propio kontratatuko duen dinamizatzailea, astean 8/10 ordu (euskalgintzako elkarte bakarrarekin sinatutako hitzarmena bitarteko – "Busturialdean euskaraz bizi" elkartea).
- Euskara dinamizatzailea eta Artez enpresako teknikariak, Hitzargune kanpainako kideen artean zabalkunde lanak egiteko.
- Berbalaguneko dinamizatzailea (11 orduko irakurraldiaren antolaketarako)
- Musika eskola eta Gernika-Lumoko Kantagunea (abenduaren 3aren aurreko egunetan abestiak sareratzeko).
- Elkarteak, norbanakoak, musika taldeak, literatur zaleak, bertsolariak, belarripresten testigantzak, ahotsak.com-eko nagusien testigantzak, eta hainbat eragileren saioak, Euskaraldirako eratu den youtubeko "berakatz zopa" plataformako streaming-ean.
- Sustatzaile Batzordeko kideak (barru daude euskalgintza, lan-mundua, merkataritza, elkarteak, irakaskuntza, alderdi politikoak eta sindikatuak,...), hausnarketarako eta erabakiak hartzeko gunea.

**Baliabide materialak:**

- Ekitaldietarako eszenatokiak, megafoniak eta abarrak Udalaren ardurapekoak izan dira.
- Diruzko baliabideak Gernika-Lumoko udaleko Euskara Sailaren partiden kontura izan dira (publizitatea eta zabalkundea).

## 6.- BALORAZIOA

**Entitateen izen-ematea: 97.**

Gernika-Lumon Euskaraldian partaide izan den **entitate kopurua (97)** poztekoa izan da eta, gainera, gizarte esparru desberdinak ordezkatzeko esanguratsua:

- Irakaskuntza: 10
- Euskalgintza: 4
- Erakunde publikoak: 7
- Lan mundua / Enpresak: 17
- Lan mundua / Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak: 48
- Kirol Elkarteak: 6
- Kultur Elkarteak: 5

**Norbanakoen izen-ematea: 2703.**

Bestalde, **izena eman duten partikularrak 2.703 izan dira,** lehenengo edizioan (3.197) baino zerbait gutxiago, baina kontuan hartuta ordukoan inguruko herri txiki batzuek ez zutela izenik eman eta horietako herritarrek Gernika-Lumora jo zutela izena emateko. Oraingoan, ostera, herri txikiek zuzenean parte hartu dutenez, bertako

herritarrek euren herriaren izenean eman dute izena. Beraz, eskualdean areagotu egin da partaidetza.

| PARTAIDEAK GERNIKA-LUMON | 2703 | % |
|---|---|---|
| EMAKUMEZKOAK | 1704 | %63,04 |
| GIZONEZKOAK | 977 | %36,15 |
| EZ-BINARIOAK | 22 | %0,81 |
| **ROLAREN ARABERA** | | |
| AHOBIZIAK | 2409 | %89,12 |
| BELARRIPRESTAK | 294 | %10,88 |
| **ADINAREN ARABERA** | | |
| 16-30 | 597 | %22,09 |
| 31-45 | 936 | %34,63 |
| 46-60 | 738 | %27,63 |
| 61-75 | 372 | %13,76 |
| 75etik gorakoak | 60 | %2,22 |

**Burutu diren jarduerei dagokienean**, nabarmendu egin behar da sare sozialak izan direla bide nagusia gauzatu ahal izateko:

- Entitateei zabalkundea egiterakoan.
- Norbanakoei informazioa ematerakoan (mailing masiboak,…).
- Aipagarria antolatu eta garatu den streaminga "BERAKATZ ZOPA telebista" youtubeko plataforman. Hona hemen jarduera honen agenda osatzekoa saioak (guztira 20 saio desberdin, dantza, sukaldaritza, musika, yoga, gimnasia, literatura solasaldia, ahotsak.eus, …) eskaini dituzten pertsona eta entitate ezagunak:

ONINTZA ENBEITA
AINHO ASTUI
ROSS DANTZA ESKOLA
ZIHARA ARRASATE
SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLA
SARA ITURRIARTE
ALEX URIARTE
KEPA LUZARRAGA
HAIMAR, ALEX ETA GAIZKA (GATIBU)
MATXALEN BEZOS
IRAIA MADARIAGA
AHOTSAK
LAGUN ETXEA TABERNA
JOSE EZEKIEL
KALAPITAKA
EDORTA UNAMUNO
MARIA ETXEBARRIA
KANTAGUNEA
EULEUK
HIBAI ETXEBARRIA
AHOTSAK.EUS

Azpimarratzekoa Euskararen Eguneko "11 orduko irakurraldia", pandemiaren ondorioz 5 orduko bihurtu behar izan duguna, baina esparru desberdinetako ohiko partaidetzarekin: irakaskuntza zentroak, euskaltegiak eta euskara ikasleak, merkataritzako ordezkariak, elkarteetakoak, komunikabideak, erakundeetako ordezkariak,... Guztira 200 bat irakurle.

## 7.- AURREKONTUA

### GASTUAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Kontratazioak** | | | |
| Bust EuskBizi Elk | 1. Trim. | 3.733 | 13.901,90 |
| | 2. trim. | 3.733 | |
| | 3. trim. | 3.733 | |
| Zuzenean (sonorizazioa/argiak) | | 1.028 | |
| Xabier Totorikaguena Zubiaga | | 653,40 | |
| Xabier Goiria 78887012W | | 544,50 | |
| Andoni Larrabeiti 45948984K | | 31,80 | |
| " " " | | 222,60 | |
| " " " | | 148,40 | |
| Ariane Arrien 72317435F | | 74,20 | |
| **Publizitatea** | | | |
| Publizitatea 11 BARRI | | 1.094,69 | 2.045,85 |
| Topagunea (identifikagarriak) | | 288,08 | |
| Eixu (pankarta/lona) | | 312,18 | |
| 2KLIK (kartela) | | 350,90 | |
| **Horniketa /materiala** | | | |
| Gabuec inprenta (diplomak | | 111,68 | 555,56 |
| Iker Ordorika (arotza) | | 443,88 | |
| **Gastuak guztira** | | | **16.503,31** |

### DIRU-SARRERAK

| | |
|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza **GUZTIRA** | 1.155,65 |

### DEFIZITA

| | |
|---|---|
| Gastuak | 16.503,31 |
| Sarrerak | 1.155,65 |
| **Defizita guztira** | **15.347,66** |

Gernika-Lumon, 2020ko urtarrilean

GERNIKA-LUMOKO UDALA

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. normalizaziorako teknikaria

GERNIKA LUMO gara sus-traiak

gernika-lumoko euskara zerbitzua

# 1. ERANSKINA

## EUSKARALDIAN PARTE HARTU DUTEN ENTITATEAK

| |
|---|
| ***Irakaskuntza (10)*** |
| *Allende Salazar Ikastetxea* |
| *Allende Salazar – Guraso Elkartea* |
| *Barrutia ikastetxea* |
| *Barrutialde Institutua IES* |
| *B10 Gernikako Berritzegunea* |
| *CEPA Helduen Heziketa Iraunkorra* |
| *Gernika-Lumoko Institutua BHI* |
| *Mertzede ikastetxea* |
| *San Fidel ikastola* |
| *Seber Altube Ikastola* |
| ***Euskalgintza (4)*** |
| *Aita Villasante Udal euskalt.* |
| *Gernikako AEK Euskaltegia* |
| *Busturialdean Euskaraz Bizi* |
| *Bertso Eskola (Lilibertso)* |
| ***Erakunde publikoak (7)*** |
| *Gernika-Lumoko Udala* |
| *Bizkaiko Batzar Nagusiak* |
| *EAJ-PNV Gernika-Lumo* |
| *EH Bildu Gernika-Lumo* |
| *Kultur Etxea Fundazioa (SOME barru)* |
| *Lanbide Ekimenak fundazioa (Behargintza...)* |
| *Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen mankom.* |
| ***Lan mundua (enpresak) (16 + Maier)*** |
| *Banco Sabadell* |
| *Banco Santander* |
| *BBVA* |
| *Caixabank* |
| *Ekin-Bizkargi autoak enpresa* |
| *ELA sindikatua* |
| *EROSKI Koop.* |
| *Gernika Garbiketak* |
| *Kutxabank S.A.* |
| *Laboral Kutxa* |
| LANPYME |

| |
|---|
| *Maier enpresa (Ajangiz)* |
| *Merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresen elkartea* |
| *Mutualia* |
| *Rural Kutxa (Nafarroakoa)* |
| *Torrezuri (zaharren egoitza)* |
| *UVESCO (BM supermerkatuak)* |
| ***Lan mundua (merkataritza / ostalaritza) (48)*** |
| @GREEN |
| adela garteiz |
| alboka taberna |
| Algelek |
| Alkar Kirolak |
| Arategia Javier |
| Ares opildegia |
| ARGIA OPTIKA |
| AUKA BIDAIAK |
| Bego eta Nerea |
| Bikaña Altzariak |
| BIKEBI |
| BikeM |
| Bikis ilaeapaindegia |
| *Bonilla argazkidenda* |
| CAMBER-EXPERT |
| DIETETICA OMAGO |
| Dionisia jantzidenda |
| DROGUERIA AMUTIO |
| DUKA |
| Eixu Estudioa |
| EKO BIDE PRODUKTU EKOLOGIKOAK |
| ELECTRODOMESTICOS OJANGUREN |
| ERA ILE APAINDEGIA |
| Errekamendi denda |
| Estetika Carmen Navarro |
| FERMIN BERRIA |
| IRANAI |
| JOANA |
| JOSTEN 2.0 |
| Kooperatiba San Isidro |
| Lagun-Etxea Taberna |
| Ladys Design |
| Loreder Parafarmazia |
| MAI PIU |
| MARIA LUISA LURRINDEGIA |
| MARLEI |
| MONONOKE |
| Nere sustraiak loradenda |
| NUEVA EUROPA |
| Obaba liburudenda |
| Optika Eguren |
| Sysbat Informatika S.L. |

| |
|---|
| Sysbat Informatika denda |
| Umeak denda |
| Uranga denda |
| Urrutxua makailaoak |
| Zurich Aseguruak (Gondra) |
| ***Kirol elkarteak (6)*** |
| *Arkupe pilota elkartea* |
| *Euzkal Jai Alai (zesta punta elkartea)* |
| *Gernikako Arin Arin Atletismo elkartea* |
| *Gernika Futbol elkartea* |
| *Gernika Rugby Elkartea* |
| *Gernika Saski-baloi elkartea* |
| ***Kultur Elkarteak (5)*** |
| *Arrano kultur elkartea* |
| *Astra* |
| *Elai Alai dantza taldea* |
| *Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Aztertegia* |
| *Gernikatik Mundura Elkartea* |

**II. ERANSKINA**

# EUSKARALDIAREN ZABALKUNDERAKO ZENBAIT EUSKARRI

## ENTITATEAK – ORRI BEREZIA (Busturialdeko HITZA)






KARTELA (IZEN EMATEA)



## KARTELA (EUSKARALDIA / EUSKARAREN EGUNA)

2020

azaroaren 20tik abenduaren 4ra

# EUSKARALDIA

GERNIKA-LUMO

EUSKARAREN EGUNA

### EGITARAUA

| | |
|---|---|
| **AZAROAren 20tik ABENDUAren 4ra** | **EUSKARALDIRAKO "STREAMING"-a**<br>Zuzeneko egitarau digitala egunero lotura honetan: "euskaraldiagernikalumo"<br>YouTube Instagram |
| **AZAROAK 25** | **EUSKAL LORRATZAK**<br>Aurtengoan kantaldia zuzenean ez, baina sare sozialetatik bai ablatuko da.<br>Antolatzailea: Segundo Olaeta Musika Eskola (SOME) |
| **AZAROAK 26/27** | **BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA**<br>Ziurtagiri banaketa Gernika-Lumoko entitateei bi egunetan zehar.<br>Antolatzaileak: Ziurtagiriaren Elkartea eta Udaleko Euskara Arloa |
| **ABENDUAK 3 15:00 / 20:00** | **11 ORDUKO IRAKURRALDIA**<br>Foru Plazan. Etxeko gozotasunean sei ordu bakoitzak eta bost ordu elkarlanean, distantziak zainduta. Irakurgaia: Kamele Jaloren "Aitaren Etxea".<br>Antolatzailea: Gernika-Lumoko Berbalagun |
| **ABENDUAK 4 19:00** | **EUSKARALDIA 2020 AMAIERA**<br>- Euskaraldirako izena eman duten entitateei agiri banaketa egunean zehar.<br>- Euskal Herri osorako adierazpenaren irakurketa Foru Plazan<br>- Segundo Olaeta Musika Eskolako taldeen musika saio neurtua.<br>Antolatzailea: Gernika-Lumoko Euskaraldia Batzordea |

segundo olaeta musika eskola · berbalagun · gernika-lumoko euskara zerbitzua · kulturetxea · GERNIKA LUMO

**PANKARTA**


AZAROAREN 20tik ABENDUAREN 4ra
EUSKARALDIA
IZENA EMOTEA: Azaroaren 19ra arte
www.euskaraldia.eus
Web orrialdean
/
Turismo Bulegoan
60 urtetik gorakoentzat
INFORMAZIOA:
688 674 196 / euskaraldiagernikalumo@gmail.com
94 627 02 05 / euskerateknikaria@gernika-lumo.com
"Gehiago gehiagorekin, gehiagotan"
gernika-lumoko euskara zerbitzua
GERNIKA LUMO

**III. ERANSKINA**

# Euskaraldiaren inguruko ekitaldiak (argazkiak)

Instagram Buscar Iniciar sesión Registrarte

berakatzzopa.tv Seguir

201 publicaciones 2,068 seguidores 999 seguidos

**Berakatz Zopa TV**
Berrogeialdizen Busturialdeko kultura agenda suten!
Egitarau bero-beroa gure lapikotik zure etxera!
Youtuben zuzeneko danak: [Berakatz zopa] kanala




PUBLICACIONES IGTV ETIQUETADAS



25/1/2021 Berakatz Zopa TV (@berakatzzopa.tv) • Fotos y videos de Instagram

Instagram Buscar Iniciar sesión Registrarte



Instagram Buscar Iniciar sesión Registrarte

